



**Donostia  
San Sebastián**

## ZOKKETAREN OINARRIAK • BERRIZ BIDAIATU

### **LEHENENGOA**

Zozketa honetan parte hartuko dute [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) web orrian edo sare sozialetan inprimakia betetzen duten eta Espainian bizi diren adin nagusikoak.

### **BIGARRENA**

Parte hartzeko epea 2021eko martxoaren 3an hasi eta 2021eko uztailaren 30ean bukatuko da, 23:59an. Zozketaren irabazleen izenak abuztuaren 5ean argitaratuko dira Donostia Turismoko web orrian eta posta elektronikoaren bidez jarriko dira haiekin harremanetan.

### **HIRUGARRENA**

Saria\*:

- 2 gau gela bikoitzean, itsasora begira, eta bi lagunentzako gosaria Lasala Plaza Hotelean (4 izar)
- Kontxako Banderaz leku pribilegiatutik gozatzeko aukera.
- Donostia Turismoko online dendaren uretako jarduera bat

\*Gaur egungo osasun krisia dela eta, Donostia Turismoak eskubidea du sariaren egunak aldatzeko.

### **LAUGARRENA**

Donostia San Sebastián Turismoak eskubidea du edozein iruzur egiten ari diren pertsonak partaidetzatik kanpo uzteko.

### **BOSGARRENA**

Donostia Turismoak oinarri hauetan aipatzen ez diren egoera nahiz horien interpretazioari buruzko zalantzen inguruan erabaki ahalko du.

### **SEIGARRENA**

Donostia Turismoa da zozketaren antolatzailea, eta INSTAGRAM, FACEBOOK, ezta TWITTER-ek ere ez dute erantzukizunik.

### **ZAZPIGARRENA**

Zozketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea.